

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

2017ko apirilaren 21a, 520 zenbakia XIII. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da



Apirilaren 28tik maiatzaren 3ra bitarte jaia nagusi Andoaingo kaleetan.

SANTAKRUTZAK 2017, GEHIGARRIA

Urnietako KE bigarren mailan aritzeko play-offaren atarian

Urnietako Balerdi Harategia taldeak 2. nazional mailara igotzeko play-offa jokatuko du, asteburu honetan hasita. UKE eskubaloiak 35 urtetan ezagutu duen kirol balentria handiena da, mutilen kategorian.

Taldea bera eta kluba osatzen duten kide guztiak olatuaren aparrean dabilta egunotan. Ez alferrik, 6.500 biztanleko herri batek 2. nazional mailan ordezkari izatea mugari historikoa bailitzateke. Are gehiago iragan gertura jauzia egin eta taldea nondik datorren gogoratzen bada. Senior mailako eskubaloi taldea dinamika txarrean murgildu zen hamarkada hasieran.

Bittor Rodriguez taldeko atezaina da, kapitain izandako jokalaria urtetan, eta klubeko beteranoenetakoa. 13 urte daramatza senior mailan, eta beste inork baino hobeto daki taldeak eraman duen bidearen inguruan: "Urte asko daramatzagunontzat, bigarren nazio-



Urnietako senior mailako taldeak igoerako play-offari ekingo dio larunbat honetan, 19:00etatik aurrera Kiroldegian.

nal mailara igotzeko aukera kristorena da, izan baitira urte batzuk partida bakar bat bera irabazten ez genuela. Orain dela 5 edo 6 urte, noski, inork ez zuen halakorik espero. Gipuzkoako bigarren mailan geunden, entrenatzera hamar lagun joaten ginen denboraldi osoan partida bakar bat irabaziz...".

Jakina, galdera egin, egin behar, baina erantzuna jakina da. Halako lorpen bat etorriko zela pentsa al zitekeen orduan? "Bai zera! Ezta erotuta ere".

Une kritiko bat gogoratzen

du atezainak: "Zirt edo zart egin beharreko unea izan zen. Orain dela lau denboraldi, **Jokin Jimenezek** taldeko gidaritz hartu aurretik. Batzartu ginen **David Belder**, **Jesus Ibañez** eta ni neu. Ea zer egin nahi genuen, zer eskatu geniezaiekeen entrenatzaileei... Eta hemen jarraitzen dugu. Urnietan beti izan dugu garbi talde baten moduan egin behar genuela lan, gazte jendea senior taldera iristeko helburuarekin, eta emaitza on honek erakusten du hala egin dela azken urteetan".

Konpromisoa eta lana, denboraldi honetako bi zutabeak. Senior taldeak 18 fitxa ditu, eta Jokin Jimenez entrenatzaileak deialdia egin eta jokalaria batzuk kanpoan utzi behar izaten ditu jardunaldi atari bakoitzean. "Hori ez zen aspaldi gertatzen Urnietan", dio Rodriguezek. "Aro ona bizitzen ari gara, orain dela bi denboraldi jubeniletatik lauzpabost gazte iritsi zirelako. Jende konprometitua, serioa, bloke ona da. Hori behar zen bultzadaxoa eman zioten taldeari".

[KIROLAK, 6-7. ORRIALDEAK]

"Andoain Esan" taldearen aurkezpena



Larunbat honetan, eguerdiko 12:00etan hasita, erabakitze eskubidearen aldeko "Andoain Esan" taldeak aurkezpen ofiziala egingo du Goikoplazan. Asteak dira taldea osatu zela eta asteburu honetan jendaurrean agertuko da: "Gure helburua udazkenean herritarrek euren iritzia hautesontzi batean sar dezaten lanean hasita da; eta, pixkanaka-pixkanaka, erabakitze eskubidearen aldeko pausok ematen hasteko ariketa martxan jartzea".

Taldean parte hartzera dei egin dute: "Tolosaldean hasi eta maiatza bitartean Urola-Kostan, Oarsoaldean, Buruntzaldeko herri askotan egingo diren galdeketen lekukoa hartu nahi dugu; gure herrian ere galdeketa martxan jarri nahi dugu".

[AGENDA, 12. ORRIALDEA]

Itzuli berri dira Portugal aldeko Andebolmania txapelketatik

UKE eskubaloi sailak laugarren aldiz parte hartu du Andebolmania nazioarteko eskubaloi txapelketan. Apirilaren 12tik 15era, Oportotik gertu dagoen Sao Joao da Madeira herriko ADS klubak antolatuta du txapelketa. Aurtengoan inoiz baino talde eta jokalar gehiago bildu dira: 150 talde eta 2400 jokalar Iberiar penintsulatik, Madeiratik eta Frantziatik joandakoak. Urnietatik 150 kidek parte hartu dute. Ordezkaritza zabala, beraz.



Aizkora desafioa Zumea plazan

Aizkora
apustua
Apirilak 22 - 18:00 - Zumea plaza

ETXEBE
-
ARIZMENDI



[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

BEATRIZ ETA SILVIA DOS SANTOS AHIZPAK EGAPE IKASTOLAN EUSKALDUNDU ZIREN

Euskaldunak, portugaldarrak izateari uko egin gabe

Aurelio dos Santos (1952) Portugalgo Vale da Mula herrian jaio zen; Maite de los Santos (1953) Salamancako Castillejo de las Casas herrian. Espainia eta Portugalen arteko muga tartean izanagatik bi he-

rriak hurbil daude. Hala ere, gaztetatik bizileku duten Urnietan eza-gutu zuten elkar. 1975. urtean ezkondu eta bi alaba izan zituzten, Beatriz eta Silvia.

Aurelio aitak portugaldarra izaten jarraitzen du, hemen ez baita inoiz nazionalizatu. **Beatriz** eta **Silvia** jaio zirenean, Portugalgo kontsulatura joan zen haurrak inskribatzera, baita bere bi abizenekin inskribatu ere: Dos Santos Ruivo (nahiz eta Portugalen seme-alaben lehenengo abizena amarena izan). Bi alabek, adin nagusitasuna lortzean, amaren abizena bigarrentzat jarri zuten euren agiritegi ofizialean.

Aureliok eta **Maitek** alabak eskolartzeko garaian, gurasoek **Egape ikastola** aukeratu zuten. Aiurri, Maite amarekin eta Silvia alabarekin bildu da.

Nolako zen gaztetan atzean utzi zenuen Castillejo de las Casas herria?

Maite de los Santos: Nekazal herri txikia. Mugan egonik kontrabando asko zegoen. Portugaldar asko etortzen zen denboraldi baterako nekazal lanak egitera. Portugaldarrak langile onak izatearen ospea zuten eta edozertarako deitzen zitzairen. Mugaren alde bietara espainola eta portugaleria ondo ulertzen genuen.

Noiz etorri zinen Urnietara?

M.d.I.S.: 1972. urtean. Bakarrik etorri banintzen ere, aurretik etorritako anaia bat hemen bizi zen. Osabak eta beste hainbat familiarterako ere ordurako hemen ziren. Toraxen lanean hasi nintzen. Aurelio, senarra ere ordurako hemen zen. Hernaniko Orbegozen lan egiten zuen. Biok auzokoak izanagatik hemen ezagutu genuen elkar. Nire gurasoak Portugalgoak, Aurelioren herri berekoak ziren, eta umetan askotan joaten ginen hara. Gogoan dut hango umeek harrika hartzen gintuztela "españolitas iros para España" esanaz. Pentsatzen dut harriak botatzen zizkiguten haien artean egongo zela nire senarra ere.

Zure burua Urnietan ikusten zenuen ezkondu zinenean?

M.d.I.S.: 1975. urtean ezkondu ginen eta beti argi izan dugu Urnietan bizi nahi genuela. Hernaniko Orbegozen enpresa itxi zenean, senarrak Gasteizera joan beharra izan zuen lanera. 16 urtean aritu zen han lanean. Gasteizen etxebizitza bat alokatu zuen beste batzuekin eta astea bertan egiten zuen, as-



Silvia dos Santos eta Maite de los Santos alaba eta ama.

teburuan Urnietara itzuliz. Geroago, bus bat alokatu zuten eta egunero etxeratzten zen lotara.

Silvia dos Santos: Gure hainbat familiarterako Orbegozoko indennizazioa hartu eta Portugalera itzuli zen. Beste batzuk Gasteizera joan ziren bizitzera. Gure aitak ere erabaki bera har zezakeen, baina hemen geratzea erabaki zuen. Aitari erruz eskertzen diogu gu Urnietatik atera ez izana.

Garai hartako Urnietan Azkorte eskola publikoa, Presentación de María ikastetxea eta Egape ikastola zeuden aukeran, eta zuei ere iritsi zitzaizuen erabakitze-ko unea...

M.d.I.S.: Orduan monjetara uniformearekin joaten ziren, eta hori ez genuen atsegin. Eta bestetik ikusten genuen hemen bizi eta lan egiteko euskara beharrezkoa izango zutela, eta gerora horrela izan da. Beraz, Egapera eramatea erabaki genuen. Senarra eta biok oso harro gaude beraiek euskaraz hitz egiten dutelako.

Kanpotik Urnietara bizitzera etorritakoen artean ohikoa al zen jarrera hori?

M.d.I.S.: Hemen zeuden portugaldar familiarak, bat edo beste kenduta, haurrak ikastetxe publikoan inskribatzeko joera zuten.

BITXIKERIA

1991. urtean Castillejo de las Casas eta Vale da Mula herrietako biztanleak ados jarri ziren, gune horretan Espainia eta Portugal banatzen dituen Turones ibaiaren gainean zubi bat eraikitzeke. Espainia eta Portugalgo gobernuen baimenik gabe egin zuten, herritarren diruarekin ordainduta. Bertatik traktoreak eta autoak pasa zitezkeen. Zubia eraisteko agindua emanagatik ere, bertan geratu zen. Handik urte gubixtara Europaren aginduz bota egin zuten.

Silvia, zein urtetan hasi zinen ikastolan?

S.d.S.: 1979an. Bi ahizpak batera hasi ginen, Beatrizek hiru urte zituen eta neuk bi. Orduan hirurekin hasten ginen baina nik ere joan nahi nuen eta onartu egin ninduten. Hasiera hartan Azkorte ikastetxean eta Zentroan –Orain Sarobe dagoen tokian– izan ginen, Lizardi kaleko eraikina egin zen bitartean.

Silvia nola baloratzen duzu zuk gurasoek ikastolara bidali izana?

S.d.S.: Ez daukat behar adina hitzik eskertzeko. Ikastolara joan izanak eta euskaraz jakiteak berez ez dizkit lane-rako atea ireki, lan bakoitzerako beharrezko diren ikasketak egin behar baitira, baina, gu euskaraz jakiteaz harro gaude.

Ikastola atzean utzitakoan, ondorengo ikasketak zein hizkuntzatan egin zenituen?

S.d.S.: Ikastolaren ondoren institutuan euskaraz jarraitu nuen, gero, unibertsitatean psikologia karrera gaztelaniaz egin nuen. Euskarazko hiztegi teknikoa konplikatua da.

Maite, haurrak ikastolan izanik, euskara ikasteko saiakerarik egin al zenuen?

M.d.I.S.: Bai, ikastolak berak antolatutako ikastaroetan ibili nintzen pixka batean. Elizaren ondoan, zinearen azpiko gela batean aritzen ginen Arantxa andeñoarekin.

Lagunartean zein hizkuntza erabiltzen duzu?

S.d.S.: Gazteago ginenean, kalean eta lagunartean erdaraz hitz egiten genuen, orain helduagoak garenean euskaraz gehiago aritzen gara. Haurreskolan lanean hasi nintzenean, berreskuratu nuen euskara. Portugalera joaten naizenean, ilobarekin euskaraz hitz egiten dut, eta asko harritzen dira. Esan beharra izaten diegu hemengo hizkuntza dela. Jakinmina pizten zaio askori. Zalan-tzarik gabe, hizkuntza berezia da gurea.

Haurreskolan egiten duzu lan, eta euskara duzu lan tresna...

S.d.S.: Horrela da. Amara auzoko haurreskolan ari naiz lanean. Haurrei naturalki hitz egiten diet euskaraz.

Haurrak ekartzen dizkizuten gurasoen artean zer-nolako jarrera ikusten duzu?

S.d.S.: Oso ona. Gurasoen artean oraintxe bertan badaude euskaraz ikasi duten kataluniarrak, euskaltegira doan egiptoar bat eta abar. Urnietan bertan ere, Kebab-eko pakistandarrari telefonoz deitu eta euskaraz erantzuten dizu.

Silvia zer eman dizu euskaraz?

S.d.S.: Txikitik bi ahizpok euskaraz hitz egiten genuen gurasoek zerbait jakitea nahi ez genuenean. Serio jarrita, badago esaldi bat "euskalduna naiz eta harro nago" dioena, eta horrelaxe sentitzen naiz ni. Hizkuntzak jakitea premia bat da, eta txikitatik portuguesa ere modu naturalean hitz egiten dudana moduan, ez dut ulertzen hemen bizi den hainbat jende gaur egun beraie seme-alabentzako A eredu eskatzen jarraitzea. Ez zait buruan sartzen.

ERRENTA2016
gipuzkoa.eus
902 100 040

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

ZURE EKARPENAK, EGUNEROKOAN ONURA. GOGOAN HARTU.

Aurten, aurrekontuaren ia erdia bideratu da gizarte politiketara. Ekonomia sustatzea eta enplegua sortzea ere lehentasuna dira. Hori, eta gehiago. Eta guztia, zu onuradun izan zaitezten.



Amaia,
oñatiarra.
Ingeniaria.

- A** Gipuzkoa osoa lotzen duten Lurraldebuseko 111 linea.
- B** 3.478 langile kontziliazioaren ingurukoko esperientzia pilotuetan parte hartuz.
- C** Gipuzkoako biribilgunea: autobia edo autobide bat herri bakoitzetik 15 km baino gutxiagora.
- D** 90 km baserri bideren berritze lanak 75 herritan.
- E** 419 enpresa berri: 147 emakumeek sortuak.
- F** %67ra bitarteko deskontua autobietan Abiaturi esker.

Anbotora irteera datorren apirilaren 30ean



Anbotoko ipar aurpegitik igoko dira, Axpe aldetik. 6-7 orduko buelta da.

Zanpatuz mendi taldeak Anboto mendira igotzeko irteera antolatu du apirileko azken egunerako, 30erako. Igandea hautatu dute, hurrengo eguna maiatzaren 1a dela baliatuz, jai eguna alegia. Zailtasun handiko irteera da, 6-7 orduko buelta delako, eta lehen igoerak 1.000 metroko desnibela gainditzeko duelako. Anbotoko ipar aurpegitik igoko da taldea, Axpe aldetik, eta bi ordu pasa beharko dituzte Bizkaiko mendi ezaguneko tontorrera iristeko (1.331 metro).

Gailurretik Urkiolako santutegira joatea da asmoa, baina egun horretako eguraldiaren arabera erabakiko da hori. Izan ere, gailurretik Urkiolatik datorren bidera jaisteko zatia nahiko konplexua da, harritsuak, eta bustita badago kontu handiz egin

beharko da jaitsiera. Ordu erdiko jaitsiera da, baina mendi taldeak joan nahi duen herritar orori zailtasun hori aintzat har dezala eskatzen dio. Horregatik izendatu dute irteera zailtasun handikoa.

Bukaera Urkiolako santutegian bada, irteerak 11 kilometro eta 1.271 metroko desnibel positiboa osatuko ditu. 6-7 ordu, badaezpada. Bakoitzak bere bazkaria eman beharko du. Irteera ordua goizeko 08:00tan izango da Matxo tabernaren pareko bus geltokitik. Itzulera 18:00ak aldera, gutxi gorabehera. Bazkide direnek 10 euro ordainduko dute, eta ez direnek, aldiz, 15 euro. Apirilaren 26a, asteazkena, izena emateko azken eguna da (Xauxar eta Kanto tabernak, eta Ikasmin akademia).

Alex Txikon mendizalearen hitzaldia Saroben



Alex Txikonek hitzaldia eskainiko du Saroben, apirilaren 28an.

Alex Txikon mendizaleak Nanga Parbat eta Everest mendietako neguko ahaleginen bizitakoa kontatuko du, datorren apirilaren 28an.

Saroben izango da hitzordua, iluntzeko 19:00tan hasita, Zanpatuz mendi taldeak eta Urnietako Udalak antolatuta. Lemoarra munduko alpinista onenetakoa bilakatu da, Nanga Parbat 8.125

metroko mendizarra neguan igo zuen lehen mendizalea izan baitzen. Iaz izan zen hori. Negu honetan Everest munduko mendi garaiean saiatu zen (8.850 metro), baina Hego Leporaino iritsi zen, 8.000 metroko mugara, haizeak aurrera egitea ezinezko egin zuen arte. Aukera paregabea neguko espedizioen berri jakiteko.

Apirilaren 29an kontzertua Saroben, Iñistorraren eskutik

Lear musika taldea

Liburuaren eguneko ospakizunen harira, apirilaren 29an, arratsaldeko 19:00etan Saroben eskainiko den kontzertuan izango da Urnietako **Lear** taldea, herriko **Lappa** eta Donostiako **Bi zaldi** taldeekin batera. Taldeko kide diren **Andrea Legarra**, **Irene Legarra** eta **Maialen Mirandaren** hitzak jaso ditugu.

Noiz sortu zen Lear taldea, nortzuk osatzen duzue, eta zein izan da orain arteko ibilbidea?

Andrea Legarra: Irenek eta biok betidanik jo izan dugu etxean. Gitarra jo eta kantatu, eta 2016ko uztailean Xauxar tabernan antolatzen dituzten "Asteazken sozial" horietako batean jotzea eskatu ziguten, eta baiezkoa eman genuen. Orduan, Maialeni aipatu genion eta berak kaja joko zuela esan zigun. Horrela, kanta batzuk prestatu eta lehenengo emanaldia egin genuen. Geroztik hainbat tokitan jo izan dugu, hala nola, Firestonen, Añorgako gaztetxean, Durangoko gaztetxean, Igorreko herrikoan, Ordiziako gaztetxean, Gasteizko gaztetxean...

**Nolako izan dela esango zenukete herritarrek egindako harre-
ra?**

Irene Legarra: Oso ona, beroa, goxoa! Euren harrera eta animoei esker sortu da Lear!

Nola deskribatuko zenukete zuen taldea, eta egiten duzuen musika?

A.L.: Umoretsua batik bat. Ondo pasatzeko egiten dugu. Leku desberdinetara joan, bertako jendea ezagutu eta gozatzeko asmoz jotzen dugu beti. Eta musikari dagokionez, bertsioak jotzen ditugu gehienbat, nahiz eta baditugun bizpa-hiru kanta gureak. Ez dugu estilo zehatzik egia esan, gustatzen zaizkigun kantak jotzen ditugu modu akustikoan, bai euskaraz, bai gaztelaniaz zein ingelesez; Berri Txarrak, Mormore,



Maialen Miranda eta Legarra ahizpak dira Lear taldeko hiru kideak.

Afu, Izaki Gardenak, Russian Red, La otra...

Zeintzuk dira zuen erreferentzia-ko taldeak?

Maialen Miranda: Ez dugu erreferentziazko talderik... Gustatzen zaizkigun kantak hartu eta gurera moldatzen ditugu. Musika entzuteko garaian bakoitzak bere gustuak ditu. Denetarik entzuten dugu hirurok.

Norenak dira zuen abestien letrak? Zein gai jorrotzen dituzue?

I.L.: Gaiari dagokionez ez dugu gai zehatzik jorrotzen. Gustatzen zaizkigun kantak aukeratzen ditugu, baina bai saiatzen gara maitasun erromantikoa eta horrek dakarren "autodestruktzioa" jorrotzen dituzten kantak saihesten, nahiz eta batzutan melodia gustatu, eta egungo gatazka edo borroka sozialetaz hitz egiten duten kantak aukeratzen. Gureak diren kantetan, adibidez, gizarte-ari buruz hitz egiten dugu, eta horrek gizaki bezala bilakatu gaituenaz.

Talde honi ibilbide luzea aurrakusten diozue edo momentuko zuen musika zaletasuna asetzeko sortutakoa da?

A.L.: Egia esan ez gara inoiz horretan pentsatzen jarri. Oso ondo pasatzen dugu, bai elkarrekin eta baita besteentzat jotzen ere. Eta helburu horrekin jarraitzen dugu.

Musika gustatzen zaigu, eta horretaz gain garrantzitsua iruditzen zaigu emakumeok eszenatoki gainean ere hartzen ari garen lekua. Ez gara heteropatriarkatuak modelatutako emakume "perfektuak", ez gu, eta ez beste inor, eta ez gara horregatik lotsatzen ezta kikiltzen eszenatoki batera igotzen garen bakoitzean, jendea begira dagoela jakinda ere. Guzti hori plazaratzeko aukera dugu jotzen dugun bakoitzean, presentzia hutsarekin eta kantuen bidez zabaltzen dugun mezua-ekin ere. Horrek motibatzen gaitu gehienbat.

Zergatik hurbildu behar dute urnietarrek apirilaren 29ko Sarobeko kontzertura?

I.L.: Guri dagokionez, herrian antolatzen diren gauza guztietara daude herritar guztiak gonbidatuak. Ondo pasatzeko gogoz badaude behintzat, eta Liburuaren egunaren harira antolatutakoa ondo pasatzeko horietakoa izango da.

Ostiralean arratsaldeko 16:30ean hasita, San Juan plazan

Zirko tailerra

Urnietako Udalak antolatuta, Tiritantes taldeak Zirko tailerra eskainiko du San Juan plazan. Ostiral honetan izango da arratsaldeko 16:30ean hasita eta eguraldi txarra izanez gero,


tailerra Egape ikastolako jostoki irekian eskainiko luke.

Psikomotrizitatea landuz, trebetasun ezberdinak praktikan jartzeko aukera eskainiko

dute. Besteak beste, oreka jarduerak (kablea orekan, rolakola, monozikloa...), zankoak (zanko mota eta teknika ezberdinak) edota aireko jarduerak (telak, soka eta trapezioa).



2017, apirila



Santakruzak Andoainen



Bitxikeriak
Arropa

Nagusia, 6. ANDOAIN
943 59 12 24



ONDO PASA JAIETAN



Jaietako tradizioari lotutako bi liburu berri idatzi ditu Juan Mari Irustak

ESKOPETEROEI ETA BATELEI LOTUTAKO LIBURU BANA ARGITARATU DITU JUAN MARI IRUSTA HISTORIA ZALEAK, SANTA KRUTZ JAIEN ATARIAN. DAGOENKO HERRIKO LIBURU-DENDATAN SALGAI DAUDE.


Zeuk egin duzu guztia: ikertu, idatzi, maketatu, argitaratu... Eta modu bikoiztuan gainera...

Bai, zaila dago liburuen argitalpenen kontua, eta ez da behar bezala baloratzen historia-liburuen atzean dagoen lana. Ez daukat negozioa egiteko asmorik, eta nire patriatik ordaindu ditut biak. Gure herriko historiaren zati bat jakinaraztea da nire asmoa, horren gutxi ezagutzen baitugu!

Eskopeteroen kapitaina nintzenean, 2002an, Santa Krutz elkarteko Joxean Jauregik hor botatzen zidan galdera, ea nondik zetozen eskopeteroak, ez baikenekien. 2005ean erretiroa hartu nuenean, Jauregik berak ikertzen has nendin animatu ninduen. Agiriak eta informazioa bildu eta bildu, jai egitarauan aipamen txikia egitea zen lehenbiziko asmoa, baina asuntuak liburu baterako tamaina hartu zuen.

Non du jatorria eskopeteroen tradizioak?

Aintzinako armen alardeetatik datorrena da, inondik ere ez da jaietako apaingarri gisa sortutako zerbait. Gerrate karlisten ostean euskal foruak deuseztatu eta soldaduska behartu zen arte, Gipuzkoan herri bakoitzak bere arma



Juan Mari Irusta Santa Krutz jaien historian murgildu da oraingoan, bi liburu kaleratuz.

“Regatas de bateles de Santa Cruz sobre el río Oria en Andoain” eta “El escopetero de Andoain de la fiesta de Santa Cruz” liburuak salgai daude Delgado, Ernaitza eta Stop liburu-dendatan

alardea egin behar izaten zuen, Santiago egunaren inguruan. Frantsesen edo ingelesaren inbasioaren beldur, diputazioak herriko miliziak mobilizatzea agintzen zuen, 18 eta 60 urte bitarteko gizonetzkoak hain zuzen. Hiru bat egunez irauten zuen ospakizuna izaten zen, eta tartean armen inguruko lehiaketak, dantza saioak..., denetik antolatzen zen.

Andoainen eskopeteroak Santa Krutz jaiekin eta herriko banderaren jaitzierarekin lotu izan dira aspaldiko urtetan...

1919an ekin zitzaion tradizio horri, Garagorri alkate zela. Agintariek, eskopetero eta bordon dantzariekin batera, herriko bandera Olajauna etxera jaitsi

bitoria
arraindegia

Ondo pasa jaietan!

Eskola, 3. 20140 Andoain.
Tel.: 943 303 966 - 637 558 005.

aldama_tapia
aholkularitza

Ondo pasa Santakrutzetan!

Txitibar plaza, 3-behea • Tel.: 943 594 476 / 943 300 167 • 20140 ANDOAIN

EROSKI city

Ondarreta kalea, 10-12 ANDOAIN
943 300 760
Jai zoriontsuak!

ORDUTEGIA:
Astelehenera: 15:00-19:00
Asteartetik ostegunera: . 09:00-19:00
Ostiraletan: 09:00-17:00
Larunbatetan: 08:00-13:00

Jai zoriontsuak!

ILEAPAINDEGI ETA ESTETIKA

Tatoó
Piercing
Laser
Depilazioa

adats

Belabi kalea, 10-behea
20140 Andoain - Tel.: 943 570 796

TXINDOKI TABERNA

JATE TXEATABERNA

Gora Santakrutzak

Kale Nagusia, 55.
20140 ANDOAIN
Tel: 943 592 954



“Santa Krutz jaietako eskopeteroen tradizioari 1919an ekin zitzaien. Agintariek, eskopetero eta dantzariekin batera, herriko bandera Olajauna etxean ipintzen zuten, jaiak amaitu arte”



1954an irabazle suertatu zen Kaletxikiko tripulazioa: Fermin Belamendia, Joseba Arabaolaza, Joakin Atrasagasti, Jesus Mari Gorostidi eta Bixente Ormaetxea.

“1963an Peña Santa Krutz elkarteak egundoko tripulazioa atera zuten. Tartean ziren geroxeago olinpiadetan parte hartu zuen Jexus Mari Leizeaga Ubilluts, eta hamabost urteko Jose Luis Korta”

eta hantxe zintzilikatzen zuten, jaiak amaitu arte. Bertan udalbatza egiteko ohitura ere bazuten. Prozesio erlijiosoa-ekin batera egiten zen bandera jaitse-
ra hori. 1934 arte izan zen horrela, Errepublikarekin batera prozesioak kentzen joan baitziren. 1957an berreskuratu zen ohitura hura, Santa Krutz elkarteak sortzarekin batera.

Ezpata dantzariak gehitu zaizkio tradizioari azken urtetan. Nola ikusi duzu aldaketa hori?

Primeran egokitu dira ekitaldira. Serio hartu du tradizioa Urki dantza taldeak, eta ikusgarritasuna eta aberastasuna erantsi zaio jaiari.

Zeuk 2013an utzi zenuen kapitainaren kargua. Nola ikusten duzu eskopeteroen geroa?

Santa Krutz eta Zumeatarrako kideek osatzen dute taldea, gaur egun; badago 15 laguneko koadrilla eta hor segituko duena beste hamar bat urtetan. Baina aurreragoko kontua ez dago ziurtatuta. Ez da lan erraza izango tradizioa maite duen gazte jendea inplikatzeari.

Herrian sustraituta al dago eskopeteroen tradizioa?

Bai, baina esango nuke batik bat barrubarrutik Kale Nagusiko eta inguruetakoa pertsona helduek sentitzen dutela. Ez hainbeste gazteen artean.

Zure bigarren liburuak batelen estropaden kronika dakar...

Egundoko arrakasta eduki zuten Gipuzkoa mailan 1950etik 1984ra bitarte jokatu ziren batelen lehiaketa ezberdinek. Bere eboluzioa eduki zuten, nola-

nahi ere. Bi laguneko piraguekin hasi ziren lehen urteetan, lauko txalupekin jarraitu zuten hurrengoetan.

Zumea, Bastero, Etxeberrieta eta Kaletxiki auzoko gazteak lehiatu ziren 1961 bitarte, eta orduz geroztik Gipuzkoako arraun taldeen arteko estropada bilkatu zen. Urte horietan Andoaingo ordezkariak Santa Krutz eta Errekaburu elkarteek osatu zuten.

Jendetza erakartzen zuten batelek...

Ikaragarria izaten zen! Jendez gainezka jartzen ziren Oriai ibaiaren bi aldeak. Kontxako estropadak alde batera utzita, Andoaingo bandera Gipuzkoan oihartzun handiena zuen norgehiagoka izan ohi zen. Egin kontu, Donostiako estropadetan aritzen ziren artekariak erdiak etorri ohi ziren hona, dirua jokatzen baitzen apustueta.

Andoainen, betidanik, Santakrutzak Sanjuanak baino herrikoioagoak eta arrakastatsuagoak izan dira: Udaberrian sartu berritan ospatzen direlako, inguruan beste inon jairik ospatzen ez delako... urte haietan batez ere nabaritzen zen alde.

Auzotarren arteko lehiaketak, biziak izango ziren inondik ere...

Borroka latza izaten zen auzoen eta auzotarren artean, ur gainean ez ezik bai-

ta kalean ere. Jaien aurreko entrenamendu egunetan, egundoko mugimendua egoten zen erreka bazterretan; ikusle ugari biltzen zen, beretarren eta aurkari indarrak neurtzera joanda. Behin auzo batekoak beste auzo bateko arraunlari bat “erosten” saiatu ziren; arraunlariak berak kontatu zidan hori... Detaile horrek eman diezaguke neurria, zenbateko grinez bizi ohi ziren batelak.

Makina bat pasadizo bilduko zenituen. Baten bat kontatzerik?

Esate baterako, Zumeako tripulazioari 1956an gertatutakoa. Norghegiagoka hasi aurretik, zaletu batek koñak botila eskaini zien arraunlariari, hura edanez gero arraunean kementsu arituko zirela aginduz. Baina lanean hasi bezain pronto, euforiko zegoen patroiak batela urbazterrerara bideratu zuen. Arraunlariak, haserre bizian, elkarrekin sesioan hasi ziren, eta patroiak, atsekabeak jota, putzura bota zuen bere burua!

Beste bat gehiago aipatu beharra daukat. 1963an Peña Santa Krutz elkarteak egundoko tripulazioa atera zuten. Tartean ziren geroxeago olinpiadetan parte hartu zuen Jexus Mari Leizeaga Ubilluts, eta 15 urte besterik ez zituen Jose Luis Korta. Saillapen fasean alde handia atera zieten gainerako

batelari. Heldu zen azken proba, eta han ere aurre-aurretik zihoazen. Baina hor non ziabogetako bat oker hartu zuten! Epaileek deskalifikatu egin zuten batela, eta orduantxe egundoko istiluak sortu ziren! Irainak barra-barra entzun ziren, eta hainbat ikusle eskutara ere iritsi zen. Dirua jokoan zegoen eta.

Apar zikinez gainezka etortzen zen Oriak ere eragingo zuten pasadizoren baten bat edo beste...

Europar zegoen ibairik kutsatuena zela zioten orduan, egin kontu. 1972an bertan behera uztekoan egon ziren, hainbestekoa baitzen aparra! Eskerrak Orioko jendeari! Bi zodiak ekarri zituzten erakustaldiren bat egiteko, eta haiek ibili behar izan zuten ibaian gora eta behera, estropadaren aurretik bidea irekitzeko.

Batelak aspaldi ezkutatu ziren Andoainen, baina jendeak oso gogoan ditu oraindik ere...

1985ean jokatu ziren azken batelak. Eskola Kalearen eta Makaldegia-
ren artean zegoen presa eraitsi egin zuten eta akabo batelen festa! Berreskura zitezkeen nahi izatera, Tolosan erabiltzen duten presa putzgarria ezarri eta horrekin sakonerako ur putzua sortuz, baina garesti irtengo litzateke. Gainera, ez dakit nik zenbateko arrakasta edukiko lukeen operazio horrek, publikoari begira.

Garaiak aldatu egin dira eta horrekin ere dezente aldatu dira gaurko gazteen jokabidea festa bizitzeko garaian. Jada ez dira kalean bizitzen eta gozatzen, iraganean bezala.



Santakruzak Andoainen, egitaraua



Apirilak 28, ostirala. 19:00. Buruhandi eta erraldoiak
Zumea plazatik kalejira irtengo dira.



Apirilak 29, larunbata. 19:30. Bakailao lehiaketa
Azken bi urteetan Batzokia elkarteko kideak nagusitu dira.

Apirilak 28, ostirala

Jaien hasiera

- 16:00 Haur pregoia Zumea plazan.
- 16:30 Txokolatada Zumea plazan.
- 17:00 Judo eta karate erakustaldia Zumea plazan. Euria eginez gero, Ondarreta ikastetxean.
- 18:30 Puzgarriak Zumea plazan. Euria eginez gero, Ondarreta ikastetxean.
- 19:00 Buruhandi eta erraldoiak Zumea plazatik hasita.
- 19:00 Gora Kaletxiki txaranga, Basterotik hasita.
- 19:00 Zumeatarrak elkartearen danborrada Zumeatarratik hasita.
- 19:30 Pregoa Zubiaurren.
- 20:00 Txosnen irekiera.
- 20:00 Giza proba: Andoain vs Gros vs Intxaurren Bekoplazan.
- 23:30 Cloverwind eta Oharkabe txosnatan.

Apirilak 29, larunbata

Auzo bazkaria, erreka jaietsiera

- 08:00 Gaupaseroen argazkia Espigoian.
- 09:30 Haurrentzako arrantza lehiaketa Espigoian. Federatu txartela ez duenak bertan ateratzeko aukera izango du.
- 12:00 Kantu kalejira Basterotik hasita.
- 14:00 Auzo bazkaria, bakoitza bere bazkariarekin Kale Nagusian. Euria eginez gero Makaldegiko aterpean. Ondoren, La Jodedera Kale Nagusian.
- 17:30 Erreka jaietsiera Etxarritik hasita.
- 18:00 Haur tailerrak, jolasak eta puzgarriak Zumea plazan. Euria eginez gero, Ondarreta ikastetxean.

- 19:00 Elektrotzaranga txosnatatik hasita.
- 19:30 Bakailao txapelketa Kale Nagusian.
- 22:30 Peña Santa Krutz elkartearen danborrada, elkartetik hasita.
- 00:00 Potentor eta Ingo al deu? txosnatan.

Apirilak 30, igandea

Sagardo lehiaketa

- 10:00 Herriko artisauen azoka Zumea plazan.
- 11:30 Urki dantza taldearen kalejira eta emanaldia Zumea plazan.
- 13:00 Andoaingo banda eta Mugaz, Li dendaren parean.
- 17:00 Soinuak taldearen kalejira Basterotik hasita.
- 18:00 Sagardo lehiaketaren XXXI. edizioa Zumea plazan.
- 18:00 Basataloak talogileak Zumea plazan.
- 20:00 Txistularien kontzertua: Trikitilariak, Alberto Agirre abesbatza Santa Krutz elizaren parean.
- 23:00 Willis Drummond eta beste talde bat txosnatan.

Maiatzak 1, astelehena

Kros herrikoa

- 10:30 XXXII. Kros herrikoa Bixente Huizi memoriala Bekoplazan.
- 11:30 Haur krosa Zumea plazatik.
- 12:30 Txirrindulari lasterketa Leizaur parkean.
- 17:00 Marsel magoa haurrentzat Zumea plazan.
- 18:30 Herri danborrada, Bekoplazan hasita.

DANENA
Ondo pasa Santakruzetan!
Eguneko menua
Plater konbinatuak
Bokatak
Zumea, 22 - Tel.: 943 590 210 - 20140 Andoain

Aita Larramendi Ikastola
Jaietan ere ekin euskaraz
Gora Santa Krutzak
Txistoki Pasealekua, z/g
20140 - Andoain
Tel.: 943 593 525 - Fax: 943 590 390
andoain@ikastola.eus
www.andoainikastola.eus
ikastolenelkartea

LEIZARAN
Gestión Inmobiliaria
Jai zoriontsuak igaro!
Kale Nagusia, 53-behea. ANDOAIN
Tel: 943 591 856
Tel: 619 661 323
e-mail: inmoleizaran@gmail.com
www.inmoleizaran.com
■ Etxebizitzak
■ Lokalak
■ Alokairuak

Zabala
Ordukari
Bitxitegia
Kale Nagusia, 14
☎ 943 593 745
ANDOAIN
Ondo pasa festetan
Gudari enparantza, 5
☎ 943 332 341
HERNANI

Goizeko 06:00etatik aurrera irekita
urkiola
TABERNA
Etorri eta dasta itzazu gure tabernako pintxo goxoak!
Kale Nagusia, 19. Andoain
943 300 142
"Ondo pasa Santakruzetan!"

Apirilaren 28tik maiatzaren 3ra

19:00 Txalaparta ibiltaria eta bertso po-
teoa, Zumea plazatik hasita.
19:00 VI. Bizikleta festa Zumea plazan.
19:00 Dukkha, The WC Grooves, Ixo!
eta Natural Project Andoaingo
taldeak txosnatan.

Maiatzak 2, asteartea

Koadrilen bazkaria

11:00 Koadrillen kalejira, Bekoplazan
hasita.
14:30 Koadrillen bazkaria Bekoplazan.
Euriarekin, Ondarreta ikastetxe-
an. Mahaia jaso eta gero, zozketa
sorpresa.
17:30 DJ Bull, Bekoplazan hasita.
20:30 Karaokea txosnatan.

Maiatzak 3, asteazkena

Pintxo lehiaketa, Zezen suzkoa

10:30 Dultzainerok kalean zehar.
10:30 Ikurriñaren jaitsiera, eskopetero-
ek lagunduta, udaletxetik hasita.

10,30 Ezpata dantza Santa Krutz elizan.
11:00 Meza santua Santa Krutz elizan.
11:30 Ezpata eta brokel dantzak Santa
Krutz elizaren parean.
11:30 Trikitilariak kalean zehar.
12:00 Txakolin dastaketa Santa Krutz
elizaren parean.
16:30 Kale hezitzaileekin jolasak, Zu-
mea plazan.
19:00 Tabernen arteko pintxo lehiaketa,
Zumea plazatik hasita.
19:00 Andoaingo txistularien kalejira,
kalean zehar.
19:00 Fino's band txosnatan.
20:00 Patxi eta konpainiarekin, plaza
dantzak Zumea plazan.
21:00 Zezen suzkoa Zubiaurretik hasi-
ta.

Egitaraua egunez egun

www.aiurri.eus

Webgunean eta sare sozialetan. Baita
bezperako argazkiak eta bideoak ere.



Maiatzak 2, asteartea. 17:30. DJ Bull

Bazkalosteko giroa alaituko du, Bekoplazan hasita.



Maiatzak 2, asteartea. 14:30. Koadrillen bazkaria

Txartelak 6 euroko prezioan, igandera bitarte salgai: Xaxi, Txitibar, Irunberri, Txindoki.



Maiatzak 3, asteazkena. 21:00. Zezen suzkoa

Zubiaurre paretik abiatuko den zezen suzkoarekin amaituko dira jaiak.

arruti *Ebako obradorea: pastelak, pastak, ogi bereziak..*

Zumea 18
ANDOAIN
943 593 777

Ondo pasa
Santakrutzetan!

arrutigozotegia@hotmail.com

Pintxoak Kopak

muga

TABERNA

ONDO PASA SANTA KRUTZ JAIETAN

Zumea plaza 1, behea. 943 47 63 94.

ORMENDI & KIROLAK

Kale Berria, 2 | 943 59 18 06 | 20140 Andoain (Gipuzkoa)

Txintxo ibili festetan!

Aukera zabala
Bixera madrildarra 29,99 €
Bixera beltza 24,95 €
Bixera haurrentzat 19,99 €

Galtza eta kamiseta, eskaintza berezia

Arrosa
T 9h-24h | 24,95 €
Berdea
T 4-14 | 34,95 €

Txindoki taberna 2017ko pregoilaria

**AURTENGO JAIEN HASIERA ATZOKO ETA GAURKO
TABERNARIEN KUDEATZAILEEN ESKUTIK IRITSIKO DA.**



Txindoki tabernako lantaldea: Iker, Urru, Kristian eta Sonia. Imanolek osatzen du lantaldea.

Barraren bestaldetik jaiari ekarpen handia egin izan diote Txindoki tabernako kideek. Iraganean **elosegitarrak** izan ziren. Gurasoek zabalduko bideari jarraituz, **Maxus, Andoni, Patxi** eta **Mikel** anai-arrebek jaiaren alde lan egin zuten. Duela urte batzuk negozioa **Urru**ren esku utzi zuten, eta berak ere jaiarekiko konpromisoari eutsi dio. Jai batzordeak atzoko eta gaurko tabernariak omendu nahi izan ditu eta apirilaren 28an, atzoko eta

gaurko tabernaren jabeak pregoia irakurtzera gonbidatu ditu.

**AZKEN URTEETAKO PREGOILARIAK
SANTA KRUTZ JAIETAN**
2017 Txindoki taberna.
2016 Katramila.
2015 Auzoko merkatariak.
2014 1964ko danborradako emakumeak.
2013 Urki dantza taldea.
2012 Olinpiapopularrak.

Danborradako entseguak

**DATORREN ASTEAN BI ENTSEGU EGINGO DITUZTE PEÑA SANTA
KRUTZ ELKARTEKOEK ETA AMINISTIAREN ALDEKOEK.**



Herri danborradako hainbat kide, lazko edizioan.

Zumeatarra elkartearen danborradarekin hasi ohi dira Santa Krutz jaiak. Eta, ezagun denez, beste bi danborrada gehiago izaten dira jaietan: Peña Santa Krutz elkartearen danborrada eta Amnistiaren aldekoa.

APIRILAK 24 ETA 26, ENTSEGU EGUNAK
Peña Santakruz elkartearen danborrada apirilaren 29an irtengo da, larunbatarekin, gaueko 22:30ean hasita. Danborrada prestatzeko bi entsegu deitu ditu el-

karteak. Biak ere datorren astean izango dira, apirilaren 24an eta 26an, iluntzeko 20:00etan hasita Leitzaran jate-txearen ondoko lokalean.

Bi egun horietan eta toki berean, gaueko 21:00etatik 22:00etara Amnistiaren aldeko danborradak entseguak egingo ditu. Antolatzaileek partaideei gogorarazi diete entsegetara joatea beharrezkoa dela. Horrez gain, aurrean ere presoaren aldeko txosna ipiniko dute eta bertan lan egiteko deialdia luzatu dute.

Gora Santakrutzak!

Amama Klaudia
GASTROBENTA - DASTATZE - DEKORAZIO ETA ARTEA
GOSARIAK - EGUNEKO MENUA - HANBURGESAK
PRESTATUTAKO JAKIAK - BOKATAK - **Harategi-Urdaitegia**
Zumea plaza, 5-behea. Andoain
943 031615 / 607 327432. www.amamaklaudia.com

Urrats
inprimategia

**Beste urrats bat eman dugu Urrats inprimategian.
Bai enpresa handiek eta bai negozio txikiek
publizitatea zuen neurrira egiteko aukera.
Kalitate altuko inprimatze digitala.
Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe.**

Ondo pasa jaietan!

www.urratsinprimategia.com
Zumea Kalea, 19. Andoain. Tel.: 943 575 293
urrats@urratsinprimategia.com

*Saldias
arrandegia*

Zumea kalea, 5
ANDOAIN
Tel.: 943 590 704
Ondo pasa festetan!

ARANBURU
artekaritza - Aseguruak - Aholkularitza

**Gora
Santa
Kruz
jaiak**

Kaleberria, 6 behea
ANDOAIN
☎ 943 590 814
Faxa: 943 592 403
artekaritza@agencia.axa-seguros.es

- Cambridgeko azterketen prestakuntzarako zentro homologatua.
- Prestakuntza trinkoa: Cambridgeko azterketak ekainean eta uztailan.

Ondo pasa!

Tolkien, ingelesaren sinonimo Andoain

Ondarreta 7, behea. ANDOAIN. 943 300 839
www.andoainenglish.com

Desafioa donostiarren aurka

ANDOAINGO ZORTZIKOTEAK JAIETAKO LEHEN EGUNEKO GIZA PROBAN BI AURKARI IZANGO DITU: GROS ETA INTXAURRONDO.



Andoain, Gros eta Intxaurrendoko hiru zortzikoteak nor baino nor arituko dira jaietako lehen egunean.

Berrobitik ekarriko duten 700 kiloko harria mugitzeko, nor baino nor arituko dira Andoain, Gros eta Intxaurrendoko taldeak jaietako lehen egunean. Kaleberrian trafikoa moztuko dute, Leitzarari jaietxearen pare horretan. 20 metroko luzeran, 10 minutuko saioak egingo ditu talde bakoitzak. Giza proban, talde bakoitzeko lau gizonezkoak eta lau emakumezkoak parte hartuko dute. Andoaingo zortzikotea honakoa da: **Itxasne Alkain,**

Antton Arruti, Ion Beloki, Olatz Esnal, Oroitx Gonzalez, Ekaitz Olló, Kristina Rodríguez eta Malou Henriksen.

Iluntzeko 20:00etan hasiko da desafioa, eta ikusmin handia piztuko duela ziurra da.

Iaz bezala, aurtengoan ere desafioa izango da Santakruzten hasieran. Iaz, aizkora apustua izan zen. Aurtengoan aurreratu egin dute, zehazki larunbat honetara. **Etxebe** eta **Arizmendi** lehian arituko dira, Zumea plazan.

Koadrillen eguneko txartelak salgai

IGANDE HONETAN AMAITUKO DA BAZKARIRAKO TXARTELAK EROSTEKO EPEA.



Igande honetan, apirilak 23, amaituko da bazkarirako txartelak erosteko epea.

Koadrillen eguneko bazkariaren txartelak erosteko azken eguna igandea izango da, apirilaren 23a. Dagoeneko eskuragarri daude 6 euroko prezioan, honako saltokietan: Xaxi, Irunberri, Txindoki eta Txitibar. Antolatzaileek bazkarira joateko asmoa duten herrikideei txartelak erosteko garaiz ibiltzeko deia luzatu diete.

Apirilaren 24tik aurrera, txartela erosteko antolatzaileengana jo beharko da zuzenean, eta ordaindu beharrekoa bikoitza izango da. Alegia, 12 euro.

Txartelak 6 eurotan eskuragarri daude Xaxin, Irunberri, Txindokin eta Txitibarren

Koadrillen eguna asteartearrekin izango da aurtengoan, maiatzaren leheneko ospakizunaren biharamunean eta Santa Krutz egunaren bezperan egokitu da aurtun.

TXITIBAR

Ondo pasa Santakruzetan

Zumea plaza, 7 behea
20.140 ANDOAIN - 943 570 492
www.txitibar.com

BELKOAIN
Fisioterapia zerbitzua

Saioa Audikana Ansa
Aitor Sarasola Astigarraga

Eskola kalea,
6-atzealdea 8. lokala
20140 Andoain
(Gipuzkoa)
Tel.-Faxa: 943 591 202

KUKUTEI
HARATEGIA - URDAITEGIA

Ondo pasa jaietan!

Kale Nagusia, 59
Tel.: 943 593 152
20140 ANDOAIN

Hautatutako produktoak

XIXORI

BELARDENDA

DIETETIKA ZENTRUA - KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 ☎ 943 590 199
Txitibar, 4 ☎ 943 245 023
ANDOAIN

Gora Santakruzak!

943 593 627
Ondarreta kalea,
9-behea
ANDOAIN

• Plater konbinatuak
• Bokatak
• Pintxoak

Ondo pasa jaietan!

Ondarreta

Amaia
ESTETIKA

Ondo pasa jaietan!

- Depilazio elektrikoa eta laserra
- Presoterapia
- Aurpegirako tratamenduak: - C bitamina.

Kale Nagusia, 49 • ANDOAIN • Tel.: 943 300 669

Willis Drummond, rock ekaitza

GAUR EGUN TAULA GAINEAN IKUS DAITEKEEN TALDE INDARTSUENETARIKOA JAIETAN ARITUKO DA, ZUZENEAN.



Joseba B. Lenoir, Jurgi Ekiza, Xan Bidegain eta Felix Buff taldekideak.

Urteetako isilunea "Tabula Rasa" disko berriarekin hautsi dute, eta azarozan aurkeztu zutenetik emanaldiak han eta hemen eskaini dituzte. Apirilaren 30ean, igandearekin, Bekoplazako txosnagunean zuzenean arituko dira. Gaur egungo rock taldeen artean indartsuenetarikoa da Willis Drummond. Partaideak Jurgi Ekiza kantaria, Joseba B. Lenoir gitarra-jotzailea, Xan Bidegain baxu-jotzailea eta Felix Buff bateria-jotzailea dira.

MUSIKA ESKAINTZA ZABALA AURTENGO JAIETAN

Musika estilo ezberdinez gozatzeko aukera izango da jaietan. Ostiralean, lehen egunean, **Oharkabe** dantza taldearekin batera **Cloverwind** folk talde bizkaitarra zuzenean arituko da. Larunbatean, berriz, **Potentor** Tolosako metal taldea eta **Ingo al deu?** Andoaingo plaza taldea. Aurten, maiatzaren 1ean, Andoaingo musika taldeei tarte berezia eskainiko diete.

Andoaingo musika taldeen kontzertua

MAIATZAREN LEHENEAN ANDOAINGO LAU TALDE ZUZENEAN ARITUKO DIRA TXOSNAGUNEAN.



Natural Project taldeko Estanis Elorza.

Andoaingo musikarien kontzertua izango da maiatzaren lehenekoa, eta arratsaldeko 19:00etan hasita, taula gainetik **Dukkha**, **The WC Grooves**, **Ixo!** eta **Natural Project** taldeak igaroko dira. Deigarriena azken horiena da, urteak baitira emanaldietatik desagertu zirela. Antza, kantu berriekin dabilta lanean eta disko berriren bat dute buruan. The WC Grooves edota Ixo! taldeak abenduan Andoaingo Gaztetxean aritu ziren "Ez gaude udan fest" jaialdian.



Ixo! musika taldea.

zeru

Zumea plaza, 6-behea
943 59 37 17 - Andoain

f Taberna Zeru **Gora Santakruzak!**

Ernaitza liburudenda

Liburu, joku hezitzaile eta oparietan aukera zabala

Ondo pasa Santakruzetan!

Zumea, 9 ANDOAIN. 943 592 459 - ernaitza@yahoo.com

Gabilondo
AHOLKULARITZA

Ondo pasa jaietan!

Kale berria, 1-behea • Tel./Faxa: 943 303 025
20140 ANDOAIN
E-maila: asesoriagabilondo@yahoo.es

Keinu

Gora Santakruzak!!

- Festetako zapiak, blusak...
- Dantzarako arropa
- Era guztietako bordatuak (txapelak, mantalak...)

Kale Nagusia, 12. ANDOAIN
637 283 224
keinundoain@gmail.com
www.txapelasybordados.com
www.txapelaketabordatuak.eus

AIZKORA DESAFIOA ARRATSALDEKO 18:00ETAN HASITA

Aizkora desafioa Zumea plazan, larunbat honetan

Unai Etxeberria 'Etxebe' eta Jon Arizmendi Andoaingo gazteen arteko aizkora desafioa iragarri dute Zumea plazan, larunbat honetarako. Nork lehenago ebaki lau enbor kanaerdikoak, asmo horrekin

plazaratuko dira bi gazteak Santa Krutz jaien atarian. Andoainen urtetan oso-oso atzera joan behar da herriko gazteen arteko aizkora apusturen bat topatzeko.

Gazteen arteko desafioak biziberritzeko bidean daude Andoainen. **Jon Arizmendi** eta **Egoitz Gorostegik** egin zuten apustua 2016ko Santakrutzen hasieran, eta egundoko ikusmina piztu zuen deialdiak. Arizmendi irten zen garaile, erakutsi zuen teknika bikainari esker. Aurtengoan Arizmendi bera eta **Unai Etxeberria** pilotaria izango dira aurrez aurre.

Aste santuko oporraldian oraindik ez da sumatzen giro askorik, ezta baten edo bestearen aldeko iritzi trukaketarik eta apusturik ere. Zumea plaza ikusle lepo jarriko dela aurreikusi daiteke.

Lau kanaerdikoak ebakitzeko ordu erditik jaitea espero dute biek ere. Arizmendik **Joseba Otaegi** Zizurkilgo aizkolaria izango du erakusle oraingo honetan ere; Etxeberriak, berriz, **Jexux Mari Lasa** Legorretako aizkolaria ohia.

Mendi lantegiko lankide dira bi gazteak eta baita Otaegi bera ere, eta lan eremu horretan kokatu behar dugu aizkorarako zaletasuna eta saltsa. Mekanikoen zaindari den San Eloi egunean aizkora apustua egiteko ohitura dute bertako langileek, osteraren bazkaritara joateko. Azken bi urteetan Arizmendik eta Otaegik hartu izan dituzte aizkorak, elkarren aurka jarduteko.

UNAI, HASIBERRIA

Pilotalekuetan da ezaguna Unai, eta aizkora gauza berria da berarentzat. Abentura berri batean sartzearen zergatia argitu du: "Beti erakarri izan nau aizkorak, eta ahal dudan guztietan ikusi izan dut zuzenean. Probatzeko arra sartuta neukan aspalditxo-



Unai Etxeberria.

tik, eta bai iazko Santakrutzetako desafioak eta baita lantokian Arizmendik eta Otaegik egin izan dituztenek grina hori areagotu egin zidaten".

Nonbait, Arizmendik Etxeberria maiz xaxatu izan du lantokian "biok jokatu behar diagu hurrengo apustua" esanez. Bada, Etxeberriak, erronkari heldu nahian-edo, orain bizpahiru hilabete aizkora eskuetan hartzera animatu zen, familian gertukoia duen Jexux Mari Lasak lagunduta. Arizmendik berehala eduki zuen lankidearen asmoen berri. "Asteburuan probatzera zihoala esan zidan, eta larunbat hartan bertan mezua bidali zidan, desafioa luzatuz. Bere burua horren seguru ikusi bazuen, ziur aizkorari segituan hartu ziola tamaina".

Arizmendik aitortu duenez, iaz Gorostegirekin edukitako lehiak geroztik makina bat mutil etorri zaizkio desafioa. "Horiei nik esaten diet lehenbizi probatzera etortzeko etxera eta gero

hasiko garela hitz egiten. Baina normalki ordu txikietako hizketa batean geratu izan dira denak, inork ez dio heldu erronkari zorritzarrez, eta horrexegatik Unai-aren erantzunak poztu ninduen".

Kirolaria da Unai, eta fisikoki ondo prestatu egoteak ez dio kezkarik sortzen. Bai, ordea, teknikak. "Berria da niretzat, eta konturatuta nago zein garrantzitsua den ondo moztzen jakitea. Eman eta eman aritu zaitezke, baina ez baduzu kolpe egokiarekin asmatzen, jai duzu. Azken bi hilabeteetan saiatu naiz aizkora eskuetara ohitzen, eta odoletan jarri zaizkidan arren segi behar izan dut gutxieneko teknika harriatzeko premiari estututa".

Arizmendik arrazoari ematen dio bere aurkariari, teknika ezinbestekotzat jotzeko orduan. "Jendeak telebistan ikusten ditu aizkolaria, eta iruditzen zaio asmapotroen kontua dela, indarrarekin dena egin dagoela. Baina oker dabilta; horiei Larretxea, Mindegia eta besteak jartzen



Jon Arizmendi.

dizkiet adibide gisa; gorputzez ez dira atletikoak eta urteetan ondo sartuta dabilta. Baina punta-puntan badabilta, berez daukaten teknikari esker da. Beste batzuek ezpala hamar kolpetan ebakiko duten bezala, horiek nahikoak dituzte lau kolpe".

JON, BETERANOA

Etxeberriaren aldean, bi faktore ditu alde Arizmendik: jada eskarmentu txikia edukitzea plazetako apustutan, eta urte eta erdi eramatea aizkora munduan murgilduta.

Hirugarren faktore bat ere erantsi beharko genioke Arizmendiri: jada ez dela erretzailea. Izan ere, apustua lotu eta agudo utzi zion zigarroak erretzeari. Modu xelebrea utzi ere: "Egun batean, lantokitik irten, eta auto barruan hor ari nintzen zigarroa liatzen. Unai etorri zitzaidan, eta hara zer bota zidan: *Hik horrela ez diak irabaziko!*. Zigarro hura erre nuen, baina ez nuen gozatu, eta hartu nuen amorruekin

erretzeari utzi nion. Aitortu behar dut Unairen aholkuak on egin didala".

Arizmendik gorputza larunbateko desfiorako prestatuta ikusten du. Hobekuntzak nabaritu ditu teknikoki Joseba Otaegirekin hasi zenetik, eta hauspoak ere lehen baino hobeto erantzuten dio.

Biek ere pronostiko berbera entzun dute inguruan dabilen jendearen ahotatik, hots, Etxeberria zertxobait aurretik ikusten dela larunbateko norgehiagokan. Usteak uste, honako desioarekin egin dute bat: "desafioa lehiatua izan dadila, eta bai guk eta baita ikusleek ere gozatu hartu dezagula".

Azken batean, txapela batek zein besteak jantzi, argi dagoena da aizkorarekiko eta herri kirolekiko zaletasuna zabaltzen doazela poliki-poliki andoaindarren artean, eta pozgarria da hori. Santa Krutz jaien baitan hilaren 28rako iragarri den giza-probak hazkunde horixe berresten du.



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Urnietako eskubaloia nazional mailako atarian

Urnietako Eskubaloia taldeak estatuko bigarren mailan lehiatzeko play-offa jokatu du, asteburu honetan hasita. Mutilen kategorian 35 urtetan lortu den arrakasta handiena da.

Sei taldeko ligatxoa jokatu da hasiera batean, eta lau onenek finalaurreko txartela lortuko dute; finala jokatzen duten bi taldeek irabaziko dute sari potoloa, maiatzeko azken asteburuan.

Jokin Jimenez jokalaria izan zen aspaldi, klubaren sorreran, hiru hamarkada atzera. Senior taldearen birmoldatzean erantzukizuna hartu zuen bizkar gain, entrenatzaile kargua onartuta: "Taldeak gabezia asko zituen orain hiru urte. Garrantzitsuena, ez zutela joko molde edo estilo finkaturik, ez helbururik. Pixkanaka taldea eraikitzen joan ginen, defentsa on batekin, eraso jokaldi landuekin. Gipuzkoako Bigarren Mailan jokatu behar genuen, baina Lehen Mailan lehiatzeko gonbitea egin ziguten. Eskaintza onartu genuen, baina maila galdu genuen azken jardunaldian".

Berreraikuntza lanak luze joko zuela bazekien entrenatzaileak, eta 2. urtean berriro Lehen Mailan lehiatzeko eskaintza jaso zuen Urnieta KEk. Bigarren urtea askoz hobea izan zen: "Seigarren postuan sailkatu ginen, eta itxura askoz hobea eman. Postua bera baino, garrantzitsuagoa izan zen oinarriak indartzea, taldea sendotzen jarraitzea. Besteak beste, Donibane liderraren kantuan berdinketa lortu genuen, beste inork lortu ez zuen emaitza. Horren fruitua iritsi da denboraldi honetan, 2. nazional mailan aritzeko play-offa jokatzeke lorpenarekin".

Bidea arantzaz betetakoa izan omen da: "Bai, nik neuk eta **Andoni Urbistondo** laguntzaileak ondo dakigu. Baita bigarren urtean talde teknikoan laguntzen hasi zen **Patxi Morandearak** ere. Talde batek helburu jakinik ez duenean, lana serio egiten ez duenean, dinamika aldatzea ez da erraza. Kirol talde bat baino, Gipuzkoako kantzeta hara eta hona ibiltzen zen lagun talde bat zen seniorren taldea. Emaitzari, jarrerari garrantzia handirik ematen ez ziona. Nik ardua hartu aurretik hitz eman zidaten berriro lehiatu egin nahi zutela, eta borondate hori funtsezkoa izan da". Borondate horretan gazteen etorrerak suposatzen duen bultzada nabarmentzen du Jimenezek, Bittor Rodriguez atezainak bezala, "jubeniletan zeudenetik lana egiteko konpromiso handia erakutsi zutelako".

Jokalaria ohi batekin ere gogoratu du Jimenez: **Gorka Urigoitia**. "Pasa den denbo-



Jokin Jimenez eta Patxi Morandeara taldeko laguntzaileak eta entrenatzaileak.

raldi bukaeran hartu zuen erretiroa, 40 urterekin, eta ezin izan du denboraldi on hau bizi. Bere eskarmentua eta borrorakako grina oso lagungarriak izan zaizkigu". **Egoitz Karracedoren** etorrera ere neurrian baloratzen du. Karracedo urtetan aritu da Usurbilen, nazional 1 mailan, "eta Urigoitiaren lekukoa hartu duela esango nuke, gidaritzari dagokionez". Entrenatzaileak bizitza osoa taldean daramaten jokalaria zenbait ere izan ditu gogoan: "**Jon Sanchezek** bost urte daromatza dagoeneko seniorretan, eta erreferente bilakatu da. Zer esan **Bittor Rodriguez** eta **Iosu Irigoien** atezainei buruz, niretzat kategoriako atezain bikote onena da, orekatuena...".

Jokalariez gain, lau pertsonak osatzen dute talde teknikoak, eta hori ere garrantzitsua da entrenatzailearen ahotan: "Patxi jubentzen senior mailara egin zuten jautzia zaindu zuen, haien entrenatzaile izan zelako maila horretan. Atezainen prestatzaile ere bada, bera atezaina

izan zelako. Urbistondok laguntzaile eta delegatu lanak egiten ditu, eta denboraldi honetan **Juanma Morales** fisioa hasi zaigu laguntzen. Bere ekarpena ikaragarri nabaritzen da. Astean behin saio fisiko bat egiten dugu, eta jokalariek, edozein arazo fisikoren aurrean arreta ezin hobea jasotzen dute. Laurak ondo moldatzen gara, bakoitza bere lanean".

IGOERAKO PLAY-OFFA

Gipuzkoako txapel-dunorde izan da Urnieta KE. Ordiziaren aurka bakarrik eman du amore, bitan. Igoera fasea Pazko asteko asteburuan hasiko da. Gipuzkoako lau taldek eta Bizkaiko bik parte hartuko dute. Denek denen aurka, itzuli bakarrean. Urnieta, Ordizia, Errenteria-ko Ereintza eta Donostiako Egia dira gipuzkoarrak. Sopolako Ugeraga eta Setao. Urnietako taldeak, Gipuzkoako txapel-dunorde izan den heinean, 3 partida jokatu ditu etxean, eta bi kanpoan. Seiko multzoko lau onenak finalaurre-

koak jokatzeke sailkatuko dira. Txapel-duna laugarrenaren aurka, eta 2. sailkatua 3. sailkatuaren aurka. Finala jokatzeke txartela lortzen duten bi taldeek 2. nazional mailan aritzeko lorpena gauzatu dute.

Bittor Rodriguezena da, analisia: "Ez da erraza izango. Ligatxo bat da. Lau onenen artean sailkatuz gero partida bakarrean erabakitzen da dena, eta azkenaldian partida berdinduetan neurri ona ematen ari gara. Nik konfiantza dut. Jokalariok konpromisoa dugu. Irageanean buruz buru aritzen ginen, bakoitza bere kasa, eta entrenatzaileek ere joko estilo eta eredu bat jarri du martxan. Konbinazio ona lortu da, eta azken ahalegina egitea baino ez zaigu geratzen".

Hasiera erabakigarria izanen da entrenatzailearentzat: "Taldeen erdia baino gehiago ezagutzen dugu, Ligan jokatu dugu haien aurka. Ordiziak biak irabazi dizkigu, baina ez dut ezinezko ikusten haiek menderatzea. Beste hirurei irabazi



KIROL ALBISTEAK

PLAY-OFF GARAIA

ASTEBURU HONETAN HASITA

1. UKE-Egia

Apirilak 22, larunbata. 19:00.
Urnietako kiroldegia.

2. Sestao-UKE

3. Ereintza-UKE

4. UKE-Ordizia

5. Ugeraga-UKE

diegu. Bizkaitarrei buruz ez dugu informazio handirik. Lauren artean sartzeko aukera badugula uste dut, bizpahiru partida irabaz ditzakegula". Sailkatzekotan, indar pixka bat gordetzea komeni, finalerdiei begira: "Dena partida bakarrean erabakiko da, eta hor eman behar da neurria. Ondo prestatu behar da liga bukatzea guztia".

ETORKIZUNA

Bidea ez da maiatzeko azken asteburuan bukatuko (orduan jokatuko dira finalerdiak eta finala, Urnietako Gazte Festen asteburuan). Igoera lortu edo ez, denboraldia ezin hobea izango dela dio Bittor Rodriguezek: "Oraintxe, igotzen bagara desplazamendu gastuak asko igoko direla daukat buruan (barrez)... Kirol arloan mugarrria da. Edozein arrakastak jendea erakartzen du kiroldegira. Kluba hazi egingo da. Talde nagusia kirol arrakasta lortzeko borrokan dabilela ikustea pizgarria da eskola kirolan dabilen gazteentzat, gora iristeko gogo handitzen du. Onura asko ekar ditzake". Atezainak klubak egun daukan osasunaren erradiografia zehatza egiten du, eskatu gabe: "10 urte dira eskubaloiko sekzioa bere kabuz ari dela. 130 kirolari gara, 9 talde denera. Portugalera joaten gara Aste Santu guztietan, Gabonetako Torneo antolatzen dugu... Jarraipena eman behar zaio arrakasta honi. Urte on bat egin, eta etenik ez egotea, hori lortu behar da, oinarri on bat edukitzea, osasuntsu izateko".

Jimenez entrenatzailea bera eskubaloian jokatzen hasi zeneko urteekin gogoratu da: "35 urteko historian lortu den kirol lorpenik handiena da! Nire belaunaldiarekin gogoratzen naiz: **Ander Gil, Martxueta, Otaño...**, atzetik etorri zirenekin: **Korta, Tomasena, Pagola, Goiko, Jorge...** Igoetzea jende guzti horri omenaldi bat egitearen modukoa izango litzateke, bidea egin izana eskertzea. Eta bide batez, guk bidea erakustea gazteei. Klub bateko lehen taldeak behe mailako taldeen ispilu izan behar du, erreferentzi, eta kirol arrakastak beti laguntzen du herriko gazteak erakartzen".

Beñat Senperena zentral postuko urnietar jokalaria gazteari elkarrizketa

“Bigarren nazional mailan jokatzea sekulako lorpena litzateke”

Beñat Senperena bigarren denboraldia osatzen ari da senior taldean (Urnietakoa, 19 urte). Lesio larri bat jasan zuen jubenetako azken urtean, baina bi denboralditan seniorren taldeko aginte-makila hartu du. Bera da zentrala, kapitaina kantxan. **Iosu Pagola, Ander Berrotaran, Eneko Urruzola** eta **Iñigo Perez** boskotearekin talde banaezina osatzen du.

Igoera fasea jokatzeke lorpena ezustekoa izan al da zuretzat?

Udan, **Egoitz Karracedo** 'Karra' ren etorrerarekin-eta, zeozer lor zitekeela ikusten zen. Baina zaila zen. Berrota eta Iñigo ere sartu berriak ziren (**Ander Berrotaran** eta **Iñigo Perez**), ekipoa egin gabe zegoen guztiz. Partidak irabazten hasi ginen, baina sorpresa izan da.

Noiz hasi zinen sumatzen aukera benetako zela?

Lehen itzuli bukaeran edo. Saikapenean 2. edo 3. gindoazen, eta bigarren itzulian bi partida bakarrik galdu ditugu. Ordizia liderraren eta Urolaren aurka. Horrek indar handia eman digu.

Zein izan da emaitza onaren gakoa?

Entrenamendu onak, eta jendeak bere lana serio egin izana. Iazko denboraldian ihes egiten ziguten partidak irabazi egin ditugu denboraldi honetan. Galitzen joanda ere ez dugu bururik jaitsi, eta partidak irabazi ditugu azken hamar minutuetan. Gure artean ere oso kimika ona daukagu, eta hori nabaritu egiten da.

Zer suposatzen du 19 urteko gazte baten ztat igoera fase baterako sailkatzeak?

Poztasuna. Horretarako jokatzen duzu, gauzak ondo egiteko asmoz, eta aukera izatea beti da inportantea.

Sakrifizio asko egiten al dituzu eskubaloian jokatzeke?

Ez, gustura egiten dudalako. Tira, eskertuko nuke denbora libre gehixeago asteburuan, baina ez zait batere astuna egiten.

Zer aldatu da zure lehen urtetik, iazkoa, aurtengo denboraldira?

Maila mantendu dut, eta horregatik pozik nago. Esperientzia irabazi dut. Niretzat jubenetatik senior mailara aldaketa handia izan zen, batez ere erritmo aldetik. Lesio larri batetik nentorren, eta pixkanaka sartu nintzen taldean. Egun beste jokalaria bat gehiago naiz.



Beñat Senperena zentrala eta Bittor Rodriguez atezaina.

Minutu gehien jokatzen dutenetakoa zara.

Zentral gutxi gaude-eta [Beñat bera eta John Sanchez 'Jonky']. 'Jonky' k askotan eskuin alboko postuan jokatzen du. Nire ustez Jokin Jimenez entrenatzailea gustura dago nire lanarekin. Gogo handia jartzen dut, horixe da gakoa.

Zentralak erantzukizun handia izaten du eskubaloiko talde batean. Presiorik sentitu izan al duzu?

Ez. Natural ateratzen zait egiten dudana. Nik ere akatsak egiten ditut, eta erabakiak askok hartzen ditugu, ez nik bakarrik.

Hobetzekorik ba al duzu?

Bai, eraso jokoan batez ere. Agintzen ikasi, ze jokaldi agindu, aurkariaren defentsa aztertu, beti ezin baita jokaldi bat egin. Defentsan ere zer hobetua badut.

Bost lagun igo zineten jubenetatik batera: Eneko Urruzola, Iñigo Perez, Iosu Pagola, Ander Berrotaran eta zu zeu. Beti elkarrekin zaudete.

Hasieran ni, Eneko eta Iosu bakarrik igo ginen, Iñigo eta Berrota jubenetatik geratu baitziren. Gu berriak ginen taldean, eta hasieran pixka bat geure kasa genbiltzan, nola sartu azterten. Jokalari beteranoak zeuden, **Gorka Urigoitia** kapitaina, adibidez, 40 urterekin. Taldean sartu arte halamoduz ibili ginen. Talde dinamikan sartu ondoren ederki moldatu ginen. Denboraldi honetan bostak elkarrekin gaude berriro, eta oso ondo ari gara. Bostok ibilbide osoa elkarrekin egin dugu, el-

“Garrantzitsua da igoera fasera konfiantzaz lepo iristea. Bigarren itzuli osoa bi partida bakarrik galduta osatu dugu, Ordizia liderra ere mendeen har dezakegu”

kar ondo ezagutzen dugu: gure mugimenduak, alde onak, txarrak... Nik errendimendu hobea ematen dut Eneko albokoan baldin badago, edo Iosu hegalekoan ari bada. Arazoren bat izan dugunean-eta gure artean babesa bilatu izan dugu.

Zer suposa dezake Urnietakoa bezalako talde batek Bigarren nazional mailan jokatzeak?

Kristoren lorpena. Talde hobeak etortzea herrira, jendeak eskubaloia beste begi batzuekin begiratzea... Oso lagun-garria litzateke gure eskubaloientzat. Gazteek ere erreferentzi gisa hartuko lukete, denak futbolaria joan beharrean. Txikientzat akuilu ona izan liteke senior taldea 2. nazional mailan aritzea.

Nola ikusten duzu igoera fasea? Igoera ematen duten bi postuetako bat lortzeko aukerarik ba al du UKEk?

Bai. Garrantzitsua da igoera fasera konfiantzaz lepo iristea. Bigarren itzuli osoa bi partida bakarrik galduta osatu dugu, eta nire ustez Ordizia liderra ere mendeen har dezakegu. Lehen erronka seiko ligatxotik lau onenen artean sailkatzea da, eta gero finalerdi bat irabaztea. Posible dela uste dut.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Buzkaria

INIS TORRE

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

Urrieta

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urrieta).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

APIRILAREN 20TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain, Bastero

- "Moonlight"
Lar, 22. 19:30-22:00.
Ig, 23. 19:30.
Astl, 24. 19:30-22:00.
Haurrak: "Los pitufos".
Apirilak 22 eta 23. 17:00.

■ "El bar"

- Lar, 29. 19:30-22:00.
Ig, 30. 19:30.
Astl, 1. 19:30-22:00.
Haurrak: "El bebe jefazo".
Api, 30. Mai, 1. 17:00.

Urrieta

- "Saharako gormutuak",
Diaporama-Bidaiateka.
19:00 Lekaio.
Apirilak 26, asteazkena.

Tailerra

Urrieta

- Zirko tailerra.
16:30 San Juan plaza.
Apirilak 21, ostirala.

Sariketa

Urrieta

- Antia literatur lehiaketa.
19:00 Sarobe.
Apirilak 25, asteartea.

Hitzaldia

Urrieta

- Alex Txikon mendizalearen hitzaldia.
19:00 Sarobe.
Apirilak 28, ostirala.

Musika

Urrieta

- Lappa, Lear eta Bi zaldi Urrietako Liburuaren egunean.
19:00 Sarobe. 3 euro.
Apirilak 29, larunbata.

Antzerkia

Urrieta

- Peru eta otsoa haur antzerkia. 6 urtetik gorakoentzat.
17:30 Sarobe.
Sarrera: 3,5 euro.
Apirilak 23, igandea.
- Urrietako Udal antzerki tailerra: "Pentagrama enea".
17:30 Sarobe.
Maiatzak 7, igandea.

Andoain, Bastero

- "El brujo, misterios del Quijote" (Rafael Alvarez).
21:30 Auditorioa.
Maiatzak 5, ostirala.
- "Francoren bilobari gutuna".
21:30 Auditorioa.
Maiatzak 12, ostirala.
- "Pupu eta Lore: Haizearen herria".
17:00 Auditorioa.
Maiatzak 13, larunbata.

Jaiak

Andoain

- Koadrilen eguneko bazkaria.
Txartelak salgai: Xaxi, Txitibar, Irunberri, Txindoki.
Azken eguna:
Apirilak 23, igandea.

Aurkezpena

Andoain

- Gure Esku Dago mugimenduaren "Andoain Esan" taldearen aurkezpen ekitaldia.
12:00 Goikoplaza.
Apirilak 22, larunbata.

Desafioak

Andoain

- Aizkora apustua, Etxebe eta Arizmendiren artekoa.
18:00 Zumea plaza.
Apirilak 22, larunbata.
- Giza proba, 8 laguneko hiru talderekin: Andoain, Gros eta Intxaurren.
20:00 Kaleberria.
Apirilak 28, ostirala.

Farmaziak

Andoain

- Gorospe.
Gauetz: Etxebeste (Hernani).
Apirilak 22 eta 23.

Urrieta

- Urrutia-Martin.
Etxeberri auzoa, 1. Hernani.
Gauetz: Etxebeste (Hernani).
Apirilak 22 eta 23.

Aisialdia

Andoain

- Gazte Lokalaren eskutik:
Zinemara irteera,
Apirilak 22, larunbata.
Merienda Gazte Lokalean,
Apirilak 23, igandea.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Apirilaren 30ean Iñakik urteak beteko ditu. Zorionak eta muxuak etxeko-partetik.

URNIETA


ZORIONAK



Iratik 8 urte beteko ditu datorren apirilaren 22an. Muxuak laguneren partetik. Ondo pasa!

ANDOAIN

ZORIONAK



Alainek apirilaren 28an beteko ditu urteak. Zorionak eta muxu potoloak etxeko-partetik.

URNIETA

ZORIONAK



Apirilaren 20an Haritzek 12 urte bete zituen! Jarraitu beti bezai alai. Muxu handi bat!

ANDOAIN

ZORIONAK



Inma Eizagirre 17 urte beteko ditu apirilaren 17an. Muxu handi bat bere guraso eta familia guztiaren partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Malenek 10 urte beteko ditu apirilaren 25ean. Egun polita igaro eta jarraitu orain arte bezain jator! Muxu handia. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Apirilaren 11 egun berezia izan zen, Ikerrek 4 urte bete zituelako. Ondo pasa zen uelakoan, muxu asko etxeko-partetik.

URNIETA

ZORIONAK



Zorionak Iraixok! Gozatu zure urtebetetzean eta horrelaxe jarraitu! Maite zaitugu! Muxu handia etxeko-partetik.

ANDOAIN



LIBURUAREN EGUNA

★ Urrieta ★

POSTUA • 11:00 - 14:00
• SANJOAN PLAZA

Euskal liburuaren salmenta. Maiatzaren 26ko Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldirako sarrerak. Sarobeko kontzerturako sarrerak.

• 19:00
• SAROBE

KONTZERTUA

3 euro

LAPPA (Urrieta)
LEAR (Urrieta)
BI ZALDI (Donostia).

SARRERAK SALGAI. Apirilaren 24tik aurrera: Xauxar eta Bikain (Sanjoan plaza). Egunean bertan: leihatilan, 18:00etatik aurrera.

APIRILAK 29, LARUNBATA





Apirilaren 9an hil zen, 61 urte zituela



Patxi Irastorza Goitia

Eskelak,
heriotz oharrak,
urteurrenak
Aiurri astekarian
943 300 732
diseinua@aiurri.eus